



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/11/23

Gerediaga-Elorrio autobidea Aldundiak egin eban hasierako trafiko aurreikuspenetik "oso gertu" dago

Aldundiak, 2016ko abuztuan zabaldu zan Gerediaga-Elorrio autobideko trafikoaren gaineko azkenengo datuak azaldu ditu gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako diputatuaren berbetan, errepidea bere sailak egin ebazan hasierako aurreikuspenetatik “oso gertu” dago. Lehenengo aurreikuspen hareetan “egunero 12.000 ibilgailu” aitatzzen ziran, lanegunetan. Aldundiko arduradunaren eretziz, balorazioa “oso positiboa” da. Autobideak iragarritako “kurutzaldi abiadura” lortu dau, eta urteak aurrera egin ahala gero eta ibilgailu gehiagok erabilten dabe.

Pradalesek zehaztu dauenez, joan diran irailean eta urrian, 6,4 kilometro dituan autobide horretatik “11.500” ibilgailu igaro ziran. Dana dala, esan behar da maiatzean eta bagilean errepideak 12.000 ibilgailu baino gehiago jaso ebazala. Zenbaki horreek ikusita, egiaztatu daiteke errepide azpiegiturak joan-etorri guztien “%50” deskargau dauela, eta ibilgailu astunen “%75”. Autobidetik “1.780 kamioi” igaroten dira egunero batez beste –lanegunetan–, eta hasieran ezarri zan helburua “1.800ekoa” izan zan.

Pradales baikor agertu da autobidearen epe laburreko etorkizunagaz, bere sailak esku artean dituan adierazleek erakusten dabenez, trafikoak gora egingo dau, lurraldea biziten ari dan hobekuntza ekonomikoagaz paraleloan.

Datuen kontra “ezin daiteke ezer esan”, erantzun deutso Zigor Isuskiza EH Bildu batzordekideak, eta “pozik agertu da” autobideak istripu kopurua murrizteko eta pilaketak saihesteko balio dauelako, baina, bere eretziz “hobekuntzarako neurriak hartu beharko litzatekez, Atxondoko urteeran, besteak beste”. Dana dala, Batzarretako bere taldea “arduraturata dago” aukeratutako finantzaketa ereduarengaitik, epeka ordainduko dalako 2042. urtera arte, erabileraren arabera. Eredu hori, Bizkaiko Batzar Nagusietan egingo dan Errepideen LSParen ponentzian “balorau beharreko puntua izango da”.

Horrela, Pradalesek, Bizkaiko Batzarretan onetsi zan “erabileragarritasunarengaitiko ordainketea” aitatu dau, hori dalako errepide hori finantzetako eredu. Argitu dauenez, koalizino abertzaleak ez leuke gehieneko prezioa begiratu behar, urte bakoitzeko likidazioa baino. Holan, diputatuak adierazo dauenez, 2016. Urtea “16,6 milioi” euroren ordainketagaz itxi da, hasierako aurreikuspena “24,23 milioikoa” izan zanean.

LEZAMAKO BIDEGORRIRAKO LURRA LAGATZEA

Beste alde batetik, eta EH Bilduren galderei erantzunez, baita be, Imanol Pradalesek Lezamako trenbide zaharreko bidegorriaren proiektuaren egoera aitatu dau. Proiektu horren kostua “4,5 milioi eurotan” balorau zan 2013an, “plangintzarako eta eraikuntzaren bideragarritasunerako plan bat” egin osteko lehenengo kalkuluek erakusten ebenez. Kopuru horren %40 tunelari jagoko. Diputatuak adierazo dau Aldundiak lurrengaitiko interesa erakutsi dauela, eta Gobernu Zentralari lur horreek lagateko eskatu deusola. Hainbat erantzunetan (2016ko maiatzean eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

2017ko urrian), Estaduko Ogasunak, trenbideko plataforma zaharraren jaubeak, “jaubetzaren mugak ezarteko prozedura fisikoa eta juridikoa amaitzearen zain dagola” erantzun dau.

Pradalesek gogoratuarazo dau proiektu hori Bizkaiko Txirrindularitza Plan Zuzendarian eta Bilboko Udaleko txirrindularientzako bideen planean jasoten dala. Batzar Nagusiek arauz besteko proposamen bat onetsi eben 2013ko martian, Aldundiari agindua emonez, “egin beharreko gestinoak” egin eizala, eragindako udalakaz lankidetzan, Gobernu zentralaren esku egozan lurak eskuratzeko.

ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENAK

Beste alde batetik, batzordea, arauz besteko proposamen biren eztabaidagaz eta bozketagaz amaitu da. Talde Mistoak, “Tronuen Jokoa serieko agertokiak turismoaren, ekonomiaren eta hedabideen aldetik balioan jarteko aukera aztertzeke” eskatu deutso Aldundiari. Ekimenak aurrera egin dau, Foru Gobernua eusten daben talde biak –EAJ-PNV eta PSE-EE- alde agertu diralako. Talde horreek adierazo dabenez, proposamena bat dator Lurraldeko gobernuak Gaztelugatxerako Jarduketa eta Gestino Plan Integralaren barruan jasoten dituan helburuetako bategaz, hau da, “zineagaz erlazionautako turismoaren ildo bat bultzatzea”, Irene Edesa jeltzaleak gogoratuarazo dauenez. Batzarretako gainerako taldeak abstenidu egin dira. EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek leku horretan ingurumenagaz eta kulturagaz erlazionauta dagozan eta larregizko turismotik zaindu behar diran balioak dagozala aitatu dabe.

Beste alde batetik, Podemos Bizkaia taldeak, arauz besteko beste proposamen batean, Bizkaiko Energia trantsiziorako Mahaia eratzeko eskaria zuzendu deutso Aldundiari. Idea ez da onartu, EH Bilduren aldeko botoak baino ez ditualako jaso. EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoak kontrako botoa emon dabe, euren eretxiz Batzar Nagusiak ez diralako gai hori lantzeko “foro egokia”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
23/11/2017

La autovía Gerediaga-Elorrio "roza" ya la previsión inicial de tráfico que hizo la Diputación

La Diputación ha dado a conocer hoy, en las Juntas Generales de Bizkaia, los últimos datos de tráfico de la autovía gratuita Gerediaga-Elorrio, abierta en agosto de 2016. En palabras del diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, la carretera "roza" las previsiones iniciales realizadas por su departamento que hablaban del paso de "12.000 vehículos diarios" durante las jornadas laborables. Para el responsable foral, la valoración es "muy positiva". La autovía ha alcanzado la "velocidad de crucero" anunciada y ha ido aumentando su uso según avanzaba el año.

Pradales ha detallado que durante los pasados meses de septiembre y octubre, el paso de vehículos por esta autovía de 6,4 kilómetros fue de "11.500" vehículos, si bien durante los meses de mayo y junio, la carretera ha sobrepasado la barrera de los 12.000 vehículos. Estos números hacen que la infraestructura viaria haya "descargado" de la zona el "50% de los tránsitos totales y hasta "un 75%" de los vehículos pesados. Por la autovía pasan una media diaria –en jornada laborable- de "1.780 camiones" cuando el objetivo inicial quedó fijado en los "1.800".

Pradales se ha mostrado optimista con el futuro próximo de la autovía ya que, según los indicadores que maneja su departamento, el tráfico se incrementará en paralelo a la mejora económica que está experimentando el territorio.

En contra de los datos "no se puede decir nada", ha respondido el juntero de EH Bildu, Zigor Isuskiza, quien se "ha congratulado" de que la autovía sirva para reducir la siniestralidad y evitar colapsos, aunque "deberían darse medidas de mejora como la salida de Atxondo", ha advertido. De todas formas, a su grupo juntero "le preocupa" el modelo de financiación elegido que se pagará por plazos hasta el año 2042 en función del uso. Este modelo "será un asunto a valorar" en la ponencia del PTS de Carreteras que se lleva a cabo en las Juntas Generales de Bizkaia.

En este sentido, Pradales se ha referido al "pago por disponibilidad" aprobado en la Cámara vizcaína que figura como modelo de financiación de esta carretera. Ha aclarado que la coalición abertzale no debería fijarse en el precio máximo sino en la liquidación de cada año. En este sentido, el diputado ha anunciado que el cierre de 2016 se ha fijado con un pago de "16,6 millones" de euros, cuando había una previsión inicial de "24,23 millones".

CESIÓN DE SUELO PARA EL BIDEGORRI DE LEZAMA

Por otro lado, y a preguntas también de EH Bildu, Imanol Pradales se ha referido a la situación del proyecto de bidegorri de la vía vieja de Lezama, cuyo coste aproximado fue valorado, en 2013, en "4,5 millones de euros", según los primeros cálculos efectuados tras realizar un "plan de planificación y viabilidad constructiva". De ellos, un 40% corresponden a un túnel. El diputado ha informado de que la Diputación se ha interesado por los terrenos y ha pedido la cesión de los



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

mismo al Gobierno central. En varias respuestas (fechadas en mayo de 2016 y octubre de 2017), la Hacienda estatal como propietaria de la antigua plataforma ferroviaria ha respondido que “está pendiente de finalizar un procedimiento físico y jurídico para establecer los límites de propiedad”.

Pradales ha recordado que dicho proyecto se encuentra recogido en el Plan Director Ciclable de Bizkaia y en el plan de vías ciclistas del ayuntamiento de Bilbao. Las Juntas Generales aprobaron una proposición no de norma en marzo de 2013 instando a la Diputación a que se hicieran "las diligencias oportunas" en colaboración con los ayuntamientos afectados para obtener los terrenos que están en manos del Gobierno central.

PROPOSICIONES NO DE NORMA

Por otro lado, la comisión se ha cerrado con el debate y votación de dos proposiciones no de norma. El grupo Mixto planteaba la necesidad de instar a la Diputación “a estudiar la puesta en valor turístico, económico y mediático de los escenarios de la serie Juego de Tronos”. La iniciativa ha salido adelante gracias al apoyo de los dos grupos junteros que sustentan al Gobierno foral -PNV y PSE-EE- quienes han advertido de que la proposición coincide con uno de los objetivos que maneja el ejecutivo territorial dentro del Plan Integral de Actuación y Gestión para Gaztelugatxe como es el de “impulsar una línea de turismo cinematográfico”, según ha recordado la jeltzale Irene Edesa. El resto de grupos junteros se han abstenido. EH Bildu y Podemos Bizkaia han advertido de que en el lugar existen valores medioambientales y culturales que hay que preservar del turismo masivo.

Por otra parte, Podemos Bizkaia ha defendido en otra proposición no de norma que la Diputación constituya la Mesa de Transición Energética de Bizkaia. La idea se ha rechazado ya que sólo ha contado con el apoyo de EH Bildu, mientras que PNV, PSE-EE, PP y grupo Mixto han votado en contra por entender que las Juntas Generales no es el “foro adecuado” para tratar este asunto.